## Egia

**Irutxulo**

Hilaren hasieratik zabalik da Egiako Gazte Lokala. Berriro ere, Donostiako Udaleko Gazteri Sailak Gazte Lokala diruz ez laguntzea erabaki du. Udalaren erabakiak arriskuan jarri zuen 12-17 gazteei zuzendutako zerbitzu hau. Hala ere, auzoko gaztetxoek, bertan lanean ari diren hezitzaileek eta gurasoek zerbitzuaren alde apustu egin dute. Beraz, seigarren urtez jarraian Egiako gaztetxoek beren aisialdirako topagunea izango dute.

Aurreko urteetan bezala, Gazte Lokaleko hezitzaileek aurtengo ikasturterako jarduera ugari antolatzeko asmoa dute. Gogoan izan dezagun, hezitzaileok egitasmo pedagogiko zabala bultzatu nahi dutela: elkartasuna, talde lana, lankidetza, ekologia, koheziketa... jorratu nahi dituzten baloreetako batzuk dira.

Datorren asterako, hilak 27, arratsaldeko 17.00, etatik hasita beldur gaua antolatu da. 19.00etan hainbat filma ikusi ahal izan dira.



### Beldurrezko gaua dator

12-17 urte bitarteko gaztetxoak ibiltzen dira Gazte Lokalean

### Gazte Lokalak dirulaguntzarik gabe darrai

## Altza

Argazkian amaren besoetan ageri den ume politt hori Oihana duzue, Larraitz Garmendia Altzako gure korrespontsal txintxoak joan den osteguneko goizaldean izandako alabatxoa. Hemendik aurrera, Izeia txikiak izango du norekin jolastu etxean bertan. Ongietorri Oihana eta zorionak Larraitz!



### Ongietorri Oihana!

IZKIÑA

EDARITEGIA
JATETXEA

*OTARTEKOAK*
*PINTXOAK*

*Fermin Calbeton 4*
*Tel.: (943) 42 25 62*
*DONOSTIA*




IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK



Askatasunaren Hiribidea, 7 - 4º F
Tel.: (943) 42 41 21 • 20004 DONOSTIA